


## Aurkibidea

1. SARRERA.....	2
2. HELBURUA ETA XEDEA.....	2
3. ERRONKAK ETA KONPONBIDEAK.....	3
4. ALIANTZAK.....	5
5. ALIANTZAK OSATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....	6
6. ZUZKIDURA, BATERAKO FINANTZAKETA ETA GAUZATZE-EPEA.....	7
7. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK ETA GASTUAK.....	7
8. ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOA.....	9
9 EBALUAZIO-PROZEDURA ETA EBAZPENA.....	11
10 BALORAZIO-IRIZPIDEAK.....	12
11 BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.....	13
12 JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA.....	14
13 INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA.....	16
14 DATUAK BABESTEA.....	16
15 LANKIDETZA-HITZARMENA.....	16
GARRANTZITSUA.....	16



## 1. SARRERA

Duela gutxi, Kutxa Fundazioak hausnarketa estrategikoko prozesu bat burutu du, eta honela definitu du bere helburua: **Gipuzkoa ikasiago, sortzaileago, bidezkoago eta jasangarriagoari laguntzeko erantzunak sustatzea eta bultzatzea, gaitasun kritikoa eta konpromiso kolektiboa sustatuz.**

Helburu horrek hiru lehentasun ditu:

1. Gipuzkoa bidezkoagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen laguntzea, bertan edozein pertsonak, bere inguruabarrak gorabehera, aukera desberdinak –hezkuntza, kultura, lan... arloetan– baliatu ahal izan ditzan baldintza-berdintasunean, eta aniztasuna errespetatuz elkarrekin bizi ahal izan gaitezen.
2. Ohitura ekologikoagoak dituzten herritarrekin Gipuzkoa jasangarriagoa sustatzea, klima-aldaketaren erronkei premia erantzungo diena. Bere biodibertsitatea zainduko duen, ekosistemak babestuko dituen, eta, berdeagoa izango den eta gizarte-aurrerapenaren zerbitzura egongo den ekonomiarantz lasterrago igaroko den lurraldea.
3. Ezagutzaren Gipuzkoa finkatzea, kultura-kapital eta espiritu kritiko handiagoarekin. Herritar ahaldunduak, gure historia eta ondarea hobeto ezagutuko dituztenak eta gure etorkizunaren eraikuntzan protagonista izateko beharrezkoak diren gaitasunak eta ezaupideak eskuratuko dituztenak.


Helburu hori lortzeko, inpaktu-logikari jarraitzen dion eredu berri batean oinarrituta egongo den eraldaketa lortu nahi da; logika horrek inpaktua, publiko edo pertsona jakin batzuegan eragin nahi den aldaketa positiboa, jartzen du erdigunean. Ezarritako lehentasunetatik abiatuta, lau **eragin edo inpaktu-helburu** ezarri dira, eta horietako bat da **Gipuzkoako pertsona eta erakunde guztiek beren gizarte- eta ingurumen-konpromisoa aktibatu ahal izatea eta 2030 Agenda lortzen inplikatzeko, Gipuzkoan bidezko trantsizio ekologikoa bizkortzeko eta desberdintasunak murrizteko** lehentasuna emanez.

Helburu horiei erantzuteko, Kutxa Fundazioak hainbat jardueraz garatzen ditu eta horiek lortzea ahalbidetzeko tresnak prestatzen ditu. Tresna horien artean dago Kutxa Fundazioak abian jarri duen deialdi berri hau, **gizarte-berrikuntza sustatzea** helburu duena, proiektu eraldatzaileak garatzen dituzten **erakundeen arteko aliantzen bidez**.

## 2. HELBURUA ETA XEDEA.

Deialdi honen helburua da eragile anitzeko aliantzek gauzatutako gizarte-berrikuntzako proposamenak bultzatzea. Proposamen horiek Kutxa Fundazioak Gipuzkoan **bidezko trantsizio ekologikoa bizkortzeko eta desberdintasunak murrizteko** lehentasunezko zat jotzen dituen erronkei erantzun beharko diete, Nazio Batuen Garapen Jasangarriako Helburuen eta 2030 Agendaren ildotik.

Eredu berritzaileen eskalagarritasuna eta hedapena sustatu nahi dira, horien eraginkortasuna baliozkotu eta eskalabilitate-gaitasuna egiaztatu bada. Hau da, konponbide eraldatzaileak finantzatzeko dira, ikuspegi sistemikoa duten eta Gipuzkoa mailan eragin edo inpaktua izan dezaketen proiektu-sorta gisa, hainbat sektore eta arlotako erakundeen arteko aliantzen bidez garatuko direnak, irtenbide berritzaileak finkatzeko, horiek eskalatzeko eta erantzun horiek Gipuzkoako gizartearen esku jarri eta bereganatu ditzan ahaleginak egiteko.



### 3. ERRONKAK ETA KONPONBIDEAK

2022ko deialdi honen ardatza trantsizio ekologiko bidezkoa bizkortzea da, arreta larrialdi klimatikoan jarrita, biodibertsitatea babestuz eta lehengoratuz eta kontsumo eta bizi-ohitura arduratsuak sustatuz.

Klima-aldaketa konplexutasun, irismen eta premia handiko arazoa da, lidergo argiak eta espiritu eraldatzailea eskatzen dituena. Lidergoek gai izan behar dute tokian-tokiko ahaleginak konektatzeko eta integratzeko, lehentasunezko helburuetara bideratzeko eta, gainera, herritarra interpelatzeko ekintza kolektibo horrekin bat egin dezan; izan ere, ekintza kolektibo hori gabe, ez da aldaketa benetakorik ez iraunkorrik izango. Kutxa Fundazioak Gipuzkoako garapen iraunkor edo jasangarriaren aldeko apustua indartu nahi du, irtenbide eraldatzaileak bultzatu eta erraztuko dituen funtzio edo eginkizunetik.

Horretarako, 2022ko deialdi honen esparruan, Kutxa Fundazioak bi erronka estrategiko identifikatu ditu, eta horiei erantzun beharko diete aurkezten diren irtenbideek:

- **Biodibertsitatea berreskuratzea eta babestea**

Biodibertsitateari buruzko EBren Estrategian (2030) adierazten den bezala, *“biodibertsitatea Lurreko bizi-aniztasun aparta da. Gizakiok izaki bizidunen sare horren parte gara, eta sare horren mende gaude erabat: jaten ditugun elikagaiak ematen dizkigu, edaten dugun ura iragazten du eta arnasten dugun airea ematen digu”*. Krisi klimatikoaren erronken aurrean, inoiz baino nabarmenagoa da biodibertsitatearen kudeaketa eta erabilera sistema ekologikoekin sintonian eta horien mugen barruan egiteko beharra. Gure osasuna eta ongizatea horren mende daude. Horrela, Nazio Batuek sustatutako 2030 Agendak, bere 14. eta 15. helburuetan, lehorreko eta itsasoko ekosistemetan biodibertsitatea berreskuratzea eta babestea du helburu.


2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiaren arabera, naturguneen zatiketa da Natura Ondarearen kudeaketak aurrean duen arazo nagusietako bat. Zatiketa edo azpibanaketa horrek ekosistemen osotasuna eta funtzionaltasuna eteten ditu, eta gure lurraldeko biodibertsitaterako eta zerbitzu ekologikoak emateko arrisku nagusietako bat da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, natura-ondarearen %80tik gorakoaren titulartasuna, eta beraz horren kudeaketa, nekazaritza eta basogintza-sektoreen eta jabe pribatuen mende dago. Lurraren ustiapenak, errentagarritasun ekonomikoaren bilaketak eta erabilera tradizionalaren kulturak, besteak beste, batzuetan gatazkak sortzen dituzte Administrazioen Plan Estrategikoetan jasotako kontserbazio-helburuak lortzeko orduan.

Krisi globaleko une batean gaude, eta funtsezkoa da natura-ondarearen kudeaketan paradigma aldatzea, egungo gobernantza-ereduetatik praktikan parte-hartzaileagoak diren ereduetara pasatuz. Administrazio publikoek eta irabazi-asmorik gabeko ingurumen-erakundeek berek aitortzen eta aldarrikatzen dute premia hori, eta eragile sozialekiko eta komunitate zientifikoarekiko lankidetzan arituz jabe diren pertsona-komunitate eta erakunde pribatuen parte-hartzean jartzen dute arreta. Europako Erkidegoaren eremuan, jabetza pribatuko espazioak kontserbatzeko ereduen hainbat ekimen-adibide daude, eta horietako batzuk dagoeneko aplikatzen ari dira, eta lorpen arrakastatsuekin, bai Espainiako estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan.

Horregatik guztiagatik, Kutxa Fundazioak honako erronka hau identifikatzen du eremu horretan:

**Gipuzkoako natura-ondarearen kontserbazioaren eremuan eredu berritzaileak bultzatzea, jabe diren pertsona eta erakunde pribatuen parte-hartzea sartuko dutenak.**



- **Kontsumo jasangarria eta bizimodu arduratsuak**

Ekoizpen eta kontsumo jasangarriek funtsezko eta zeharkako eginkizuna betetzen dute garapen iraunkor edo jasangarrian. Produktuen eta zerbitzuen ingurumen- eta gizarte-ondorioak hobeto ulertu behar dira, eta inpaktu txikiena dutenak bultzatu. Nazio Batuek sustatutako 2030 Agendaren 12. helburuak "Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko modalitateak bermatzea" du helburu.

2050erako, munduko biztanleria 9.500 milioira iritsiko da, eta horietatik %70 baliabide ugari kontsumituko dituzten hiriguneetan biziko dira. Era berean, hemendik 2040ra, munduko ekonomiari klase ertaineko 3.000 milioi kontsumitzaile gehituko zaizkio, nahiz eta oraindik 1.200 milioi pertsona biziko diren muturreko pobrezian. Kontsumo- eta ekoizpen-jarduerak dira munduko ekonomiaren oinarria, baina gaur egungo modalitateak azkar ari dira agortzen kapital naturala. Ekonomiak eraldatzeko, Lur sistemaren sostengatzeko gaitasunaren barruan, enpleguak sortzeko eta hazkunde inklusiboa sustatzeko helburuarekin, azkar aldatu behar da kontsumo eta ekoizpen jasangarriko modalitateetara, baliabideen erabilera eraginkorraren bidez.

Hurrengo urteetarako aurreikusten diren kontsumo-joeren artean daude online merkataritza handiagoa, planetarekiko kezka handiagoa, balioen arabeko kontsumo pertsonalizatuagoa, metabertsoa (3D ekosistema digitalak) eta, besteak beste, bigarren eskukoari bultzada ematea. Erabilerragatik ordaintzeko edo produktuak zerbitzu gisa areagotzea aurreikusten da, batez ere ezegonkortasun-pertzepzioarekin lotuta, non kontsumitzaileak irtenbide bat bilatzen duen, epe luzerako loturarik gabe. Era berean, kontsumitzailearen profil nagusiak preziorik txikiena eta denbora aurrezteak bilatzen du. Bestalde, belaunaldi berriek balio berriak dituzte produktu bat aukeratzeko orduan, eta gaitasun berriak transakzio-modu ez-erokortuak presta ditzaketan eredu edo teknologietara egokitzeko.


Testuinguru horretan, beharrezkoak dira kontsumo jasangarria sustatzeko tresnak, bideragarritasuna eta irisgarritasuna eskaintzen dutenak. Hau da, kontsumo arduratsua, bertako elikagai ekologikoen kontsumoa eta ekoizpena, plastikoaren erabilera murriztea bai ekoizpenean bai kontsumoan, nekazaritza-ekologikoko ereduak, emakumeen presentzia eta lan-baldintza duinak sustatuko dituenak, ekoizpen-eredua dibertsifikaziorantz eta jasangarritasunerantz bultzatuko duena eta hondakinen sorrera murriztuko duena, eta ontziak berriz erabiltzea eta gero birziklatzea sustatuko duena. Planeta zaintzeko erdi-mailako kontzientziarioa duten kontsumitzaileei eredu interesgarriak aurkitzen lagundu behar zaie, erosketa kontziente eta arduratsua egin ditzaten; hizkuntzaren, ekonomiaren edo dedikazio-denboraren ikuspegitik beren erabilgarritasuna demokratizatzen duten ereduak izan behar dute.

Horregatik, honako erronka hau identifikatzen du Kutxa Fundazioak: "**Kontsumo jasangarria bultzatzen duten harreman ekonomikoen edo merkaturatze-eredu berritzaile**"en arloan esperimentatzeko eta pilotatzeko proiektuak bultzatzea.

Bi erronka horiei ikuspegi askotatik heldu behar zaie, ikuspegi sistemikoarekin, esparru publikoko eta/edo pribatuko hainbat eragileren arteko lankidetzak antolatuko duten aliantzen bidez.

Horregatik, hona hemen Kutxa Fundazioak bilatzen dituen irtenbideek bete beharrekoak:

- Ikuspegi sistemikoa txertatzea, bai diseinuan, bai esku hartzeko planteamenduan.
- Proiektu-sorta batean oinarritutako soluzioak izatea, eta hor era askotako erantzun artikulatuak eta beren artean konektatuak izatea, modu holistikoa erantzunez aukeratutako erronkari.




- Proiektu-sorta horretan bi tipologia hauetako proiektuak barne har ditzaketen soluzioak izatea:
  - Gipuzkoan beren eskalagarritasun eta erreplikagarritasunerako ikerketa eta/edo egokitzapen-prozesu bat eskatzen duten eredu baliozkotuak.
  - Eskalatu aurretik Gipuzkoan esperimentatzea eta/edo baliozkotzea eskatzen duten eredu edo irtenbide prototipatuak.
- Elkarrizketan eta baterako sorkuntzan oinarritutako eragile anitzeko ikuspegia txertatzea.
- Emaitzak zabaltzeko eta horiek gizarte zibilari eta gai bakoitzean interesa duten agintariei transferitzeko nahitaezko ildoari eustea.
- Faseetakoren batean herritarren inplikazioa sustatzea.
- Tokian tokiko eremuan politika publiko batekin edo gehiagorekin bat etortzea.
- Haien inpaktu sozioekonomikoak eta ingurumenekoak zenbatetsi ahal izatea, eta, gainera, tratamendu espezifikoak izatea, kolektibo guztietan, hizkuntzan, ingurumenean, gobernantza-motan eta abarretan duten eragina positiboa eta neurgarria izan dadin.
- Beren jarduera-eremuaren barruan Gipuzkoa sartzea. Gainera, esparru handiagoko lankidetzak-sareak bultzatu ahal izango dituzte, baldin eta proiektuaren helburuak hobeto lortzeko beharrezkoak badira.
- Soluzio edo irtenbidearen garapenean kokatutako ekintzen bidez, zuzeneko merkataritza-etekinik ez ekartzea aliantza osatzen duten erakundeetako inorentzat.

## 4. ALIANTZAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute eragile anitzeko ikuspegidun aliantzan gauzatu beharreko proposamenek, profil eta/edo sektore, publiko zein pribatu, desberdineko erakundeek osatuak izanik, irtenbide osagarriak eskain baditzakete.

- Aliantzak gutxienez hiru erakundeek osatu beharko dituzte, beren artean autonomoak eta independenteak.
- Benetako aliantza bat dagoela ulertuko da kide den ezein erakunde proiektuaren aurrekontuaren %60 baino gehiago eta %10 baino gutxiago gauzatzen ez duenean. Nolanahi ere, positiboki baloratuko da osaera orekatua izatea. Ondorio horietarako, azpikontratazioa ez da benetako aliantzat hartuko.
- Eskatera aliantzako erakunde bakar batek egingo du (aurrerantzean, **aliantzaren erakunde koordinatzailea**); erakunde horrek irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa eratuta egon beharko du, Kutxa Fundazioaren plataforman behar bezala erregistratuta egon beharko du, eta, hala badagokio, Kutxa Fundazioarekin hitzarmena sinatuko du, laguntzaren onuradun bakarra izango da formalki, eta ekimena bere osotasunean gauzatzeko ardura hartuko du Kutxa Fundazioaren aurrean.
- **Aliantza osatzen duten gainerako erakundeek**, nortasun juridiko propioa izateaz gain, Kutxa Fundazioaren plataforman behar bezala erregistratuta egon beharko dute.
- Aliantzak, gainera, izaera publiko edo erdi-publikoko **erakunde laguntzaileen** ekarpena jaso ahal izango du; horien partaidetza, inola ere ordainduko ez dena, ezaupideak gehitzera eta emaitzak zabaltzen, gizarteratzen eta herritarrei bereganatzen laguntzera bideratuko da, diruz lagundutako soluzio edo irtenbidearen emaitzei jarraipena emateko bideak antolatze aldera.
- Beharrezkoa da aliantzako erakunderen batek, edo laguntzailearen batek, erantzunaren jarraitutasuna sustatzeko konpromisoa hartzea.
- Beharrezkoa da aliantzako kideetako batek, gutxienez, Gipuzkoan egoitza izatea.



### **Honako hauek izan daitezke aliantzaren erakunde koordinatzaileak:**

Irabazi asmorik gabeko edozein erakunde, Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundia, mankomunitateak eta udalak izan ezik, izan daitezke aliantzaren koordinatzailea.

Orientazio gisa, hauek izan daitezke:

- Irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta fundazioak.
- Titulartasun publiko eta pribatuko unibertsitateak, Gipuzkoan ezarrita daudenak, eta horien erakunde elkartuak, betiere irabazi-asmorik gabekoak badira.
- Gipuzkoako sare publikoko eta itunpeko lanbide-heziketako ikastetxeak eta horien elkarteak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko erakundeak, baldin eta haien jarduera-eremuan Gipuzkoa sartzen bada eta irabazi-asmorik ez badute.
- Gipuzkoan kokatutako merkataritza-sozietateak, irabazi-asmorik gabeak, eta gizarte-ekimeneko kooperatibak.
- Eskualdeko garapen-agentziak.
- Enpresa-klusterrak, irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa eratuak.

### **Honako hauek izan daitezke aliantza osatzen duten erakundeak:**

- Aurreko paragrafoan aipatutako erakundeetako edozein.
- Merkataritza-sozietateak eta kooperatibak.
- Elkargo profesionalak eta elkarte profesionalak.
- Beste edozein erakunde, betiere nortasun juridikoa badu.

## **5. ALIANTZAK OSATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.**


### **Zer bete behar dute aliantza osatzen duten erakunde guztiek?**

Aliantza osatzen duten erakunde guztiek honako baldintza hauek bete behar dituzte, eta deialdiaren indarraldi osoan mantendu beharko dira:

- Legez eraturik eta inskribaturik egotea dagokion erregistroan.
- Deialdira aurkezten den unean gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea, dagokion erregistroan inskribatu zenetik.
- Nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna izatea.
- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde batean izatea. Lehentasuna emango zaio Gipuzkoan edukitzeari.
- Zerga- eta lan-betebeharrak egunean izatea.

### **Zer gehiago bete behar dute erakunde koordinatzaileek?**

- Dagokion erregistroan eratuta eta inskribatuta egotea irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa.
- Deialdira aurkezten den unean gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea, dagokion erregistroan inskribatu zenetik.
- Gipuzkoan egoitza izatea eta/edo ekimena garatzea, eta/edo Gipuzkoan errotze sozial egiaztagarria izatea.
- Aurkezturiko ekimena garatzeko bere kaudimena egiaztatzea, horretarako eskatzen den dokumentazioaren bidez.
- Kutxabank, S.A.n banku-kontu bat izatea, bertan sartuko baita erakunde onuradunak jasoko duen diru-kopurua.



## 6. ZUZKIDURA, BATERAKO FINANTZAKETA ETA GAUZATZE-EPEA.

Kutxa Fundazioak, gehienez ere, aurkeztutako aurrekontuaren %80 emango du. Aurrekoa gorabehera, Kutxa Fundazioak proposamen bakoitzari emandako zenbatekoa ezingo da 400.000 €tik gorakoa izan, ezta 100.000 €tik beherakoa ere.

Gehienez ere 6 proposamen lagunduko dira diruz.

Guztira finantzatu den zenbatekoak –bai Kutxa Fundazioak ematen dituen laguntzengatik, bai eskaeraren xede den ekimenak jasotzen dituen beste laguntza osagarri, diru-sarrera edo baliabide batzuegatik– ez du ekimenaren zenbateko osoa edo aurrekontua gaindituko. Kutxa Fundazioak diru-laguntza bat emateak ez du esan nahi Fundazioaren titulartasuneko baliabideak doan erabiliko direnik.

Kasu guztietan, aliantza osatzen duten erakundeek proposameneko ekimenak gutxienez aurrekontu osoaren %20arekin finantzatzea eskatuko da, bai funts propioen bidez, bai beste erakunde edo instituzio batzuek emandako baliabideen bidez.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko dira diruz lagundu daitekeen zenbatekoa eta laguntza ekonomikoa.

Laguntzaren xede den proposamenaren gutxienerako gastuak/inbertsioak –gauzatua eta justifikatua, laguntzaren xede eta helburua betetzat jotzeko eska daitekeena– diruz lagundu daitekeen gastuaren/inbertsioaren %70era iritsi behar du. Gutxienerako zenbateko hori ez betetzeak emandako laguntza erabat baliogabetzea ekarriko du. Proposamena gauzatzearen azken kostua hasieran aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, proportzio berean murriztuko da emandako laguntza.

Hitzarmena sinatu eta 24 hilabeteko epean gauzatu beharko dira proiektuak.

Laguntza ekonomikoa hiru fasetan ordainduko da:

- %30 hitzarmena sinatzen denean.
- %40 Kutxa Fundazioak bitarteko memoria baliozkotu eta 12 hilabetera.
- %30 Kutxa Fundazioak azken memoria baliozkotu eta 24 hilabete igaro ondoren edota proiektuak amaitu ondoren.


## 7. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK ETA GASTUAK

Kutxa Fundazioak ematen duen laguntza ekonomikoa eskaeraren xede diren ekimen eta zerbitzuak gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak/inbertsioak ordaintzeko baino ez da erabiliko, eta argi eta garbi azaldu eta justifikatuta egon beharko du horien beharra proposamena garatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, zalantzarik gabe, laguntzaren xede den jarduerarekin lotuta daudenak, hori gauzatzeko beharrezkoak direnak, proposamen onuradun bakoitzerako onartutako gauzatze-aldian sortutakoak eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordainduta daudenak.

Jasotako diru-laguntza honako **langile-kostu** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- Proposamenari zuzenean egotz dakioken lan-kostuaren (enpresa kostua) %100eraino, betiere kasu bakoitzean aplikatu beharreko lan-hitzarmena gainditzen ez badute gastu horiek.
- Zalantzarik izanez gero, Kutxa Fundazioaren irizpidearen arabera hartuko da azken erabakia, ea diruz lagundu daitezkeen edo ez.
- Diruz lagundutako kostuak ez du inola ere gaindituko aliantzako erakunde bakoitzaren lan-kostu osoaren %80a.



- Kutxa Fundazioak eskubidea izango du eskaeran aurkeztutakoaren osagarri izan daitekeen dokumentazioa eskatzeko, egoki irizten dionean.

Oro har, gastu horiek justifikatzeko, nominak, gizarte-asegurua eta dagozkien ordainketa-egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, baita ziurtagiri bat ere, behar besteko ahalordea duen pertsona batek sinatua, proposamenari egotzitako langile bakoitzak bere gain hartuko duen dedikazioaren ehuneko adieraziko duena, eta horiek erakundearen gastu errepikariak ez direla egiaztatuko duena.

Jasotako diru-laguntza **kanpo-zerbitzuen kostu** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- Proposamena gauzatzeko beharrezkoak izanik, erakunde onuradunak bere kabuz egin ezin dituen kanpo-zerbitzuei, betiere proposamenaren kostu osoaren %20 gainditzen ez badute.
- Proposamenarekin zuzenean lotutako ibilgetu material eta ez-materialaren errentamenduak finantzarriak izango dira, eta dagozkion kontratua eta faktura edo antzeko agiria eta dagokion ordainketa-egiaztagiria aurkeztuta justifikatu beharko dira. Lehen aipatutako %20ko muga ez da kasu honetan aplikatuko, eta Kutxa Fundazioak zalantzan jarri ahal izango du kostu horiek proposamenarekiko duten arrazoizkotasuna.
- Kanpo-zerbitzuen kontratazio horietan, ahal den neurrian, jasagarritasun- eta konkurrentzia-irizpideak aplikatuko dira, baita genero berdintasuna eta euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoak direnak ere.

Dagokion faktura edo gastua egiaztatzen duen agiria eta horren ordainagiria aurkeztuta justifikatu beharko dira.

Jasotako laguntza ekonomikoa **aktibo material eta ez-materialetan egindako inbertsio** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Espainiako Kontabilitate Plan Orokorrean eta haren ondorengo aldaketa edo egokitzapenetan jasotako definizioaren arabeko inbertsioei, baina ez lursailen erosketa, higiezinaren erosketa eta garraio-elementuei. Eraikin bat egokitzeko obrak, proposamena lortzeko beharrezkoak direnak, finantzatu ahal izango dira.
- Inbertsioen zenbatekoak ezingo du emandako laguntzaren %20 gainditu.

Jasotako diru-laguntza **material suntsikorren kostu** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- Material suntsikorra erosten egindako gastuei, baldin eta laguntzaren xede den jarduerari zuzenean lotuta badaude. Material hauek eta beraien erabilera jasagarriak izatea lehenetsiko da.

Dagokion faktura edo gastua egiaztatzen duen agiria eta horren ordainagiria aurkeztuta justifikatu beharko dira.


Finantzaketa **zeharkako gastu** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- Zeharkako kostutzat hartuko dira, laguntzaren xedearrekin zuzenean lotuta egon gabe, erakunde onuradunaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak direnak. Orientazio gisa esanda, ur-hornikuntza, elektrizitatea, segurtasuna, gestoria, berokuntza, gasa eta garbitasuna, posta, telefonia eta Internet, bulegoko material eta hornigaiak, eta erakundearen lokalen edo egoitza sozialaren alokairu-gastuak. Horiek zuzeneko gastuen gaineko oroharreko zenbatekoaren bidez justifikatuko dira, emandako laguntzaren %5eraino gehienez. Gastu horien justifikazioa legezko ordezkariak sinatutako ziurtagiri bat izango da.

Finantzaketa **bidai- eta mantenu-kostu** hauei aplikatu ahal izango zaie:

- Proposamenarekin lotutako langileen joan-etorri, ostatu eta mantenuaren gastuei, proposamena lortzeko beharrezkoak badira, baita inplikaturako boluntarioen edo laguntzaileen gastuei ere, betiere





proposamenarekin zuzenean lotuta badaude eta proposamena gauzatzeko beharrezkoak badira. Nolanahi ere, gastua eragin duen jarduera eta gastua egin duen pertsona identifikatu beharko dira.

- Edozelan ere, joan-etorriak turista-klasean egin beharko dira, eta ostatua, gehienez, 3 izarreko kategorian hartu.

Dagokion faktura edo gastua egiaztatzen duen agiria aurkeztuz justifikatu beharko dira, eta horien ordainagiria eta proposamenarekin duten lotura aurkeztu beharko dira.

Ezin izango da laguntza erabili honako gastu/inbertsio hauek estaltzeko:

- Deialdiaren indarralditik kanpo egindako gastuak/inbertsioak (24 hilabete hitzarmena sinatzen denetik).
- Kalte-ordainen edo laneko bajen gastuak.
- Boluntarioen dedikazio-orduak.
- Zorrak, finantza-amortizazioak, komisioak edo finantza-gastuak eta tasak ordaintzea.
- Funtsak beste erakunde batzuei transferitze hutsak eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, berreskuragarri edo konpentsagarriak direnean.
- Interesak, errekarquak, isunak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura legal eta judizialen gastuak.
- Kutxa Fundazioaren iritziz, ekimenarekin zerikusirik ez duten gastuak.

## 8. ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOA.

Eskaerak Kutxa Fundazioaren deialdien atariaren bidez egingo dira, **aurretik plataforman erregistratuta**, eta dagozkion datu eta egiaztagiria guztiak aurkeztu beharko dira. Atarian sartu ahal izango da Kutxa Fundazioaren webgunearen bidez ([www.kutxa.eus](http://www.kutxa.eus)), "Deialdiak" atalean.

Eskaera ez da izapidetutzat joko, harik eta BIDALI botoia sakatu eta plataformatik berrespen-mezua jaso arte; beraz, eskaera edizio-fasean bakarrik baldin badago, Kutxa Fundazioak ez du ebaluatuko.

Kutxa Fundazioaren plataforman erregistratzeko dokumentazioa:


- Erakundearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Erakundeak behar bezala legeztatuta dituen estatutuen kopia.
- Pertsona eskatzailearen ordezkartza-ahalordeen kopia edo, hala badagokio, karguaren izendapenarena, Estatutuen arabera horrek gaitzen badu erakunde eskatzailearen izenean jarduteko.
- Proposamenaren kudeaketan erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren IFZ.
- Erakundea dagokion administrazio-erregistroan inskribatu izanaren kopia.

Eskaera-prozesua bi fasetan banatzen da:

- Lehenengo fasean, lehen hurbilketa bat aurkeztu beharko da, hautatutako erronkari irtenbidea emateko proposamenaren ezaugarriak gaingiroki azalduz, baita aliantzaren deskribapena, nola osatuta egongo den, aliantza osatzen duen erakunde bakoitzak zer funtzio betetzen dituen eta egiten dituen ekarpenak ere. Lehen fase honi dagokion eskaera-epaia 2022ko maiatzaren 23an hasiko da, 9:00etan, eta aurkezteko azken eguna 2022ko uztailaren 8an izango da, 14:00etan.

Gehienez 8 proposamen igaroko dira hurrengo fasera.

Kutxa Fundazioak, bere esperientzian oinarrituta, hainbat motatako hobekuntzak iradoki ahal izango dizkie lehen fase hori gaingiditzen duten proposamenei, bigarren fasean aurkeztuko den proposamen osoan sartu ahal izateko.



Lehen fasean hautatutako proposamenek hautaketa-prozesutik erretiratu nahi badute (eta, beraz, ez dira 2. fasean kontuan hartu behar), erretiratzen direla adierazteko 10 eguneko epea izango dute, jakinarazpenetik zenbatzen hasita.

- Bigarren fasean, proposamenaren xehetasun guztiak aurkeztu beharko dira, plataforma berean formulario osoa beteta, eta eskatzen den dokumentazio guztia erantsi beharko zaio. Bigarren fase honi dagokion eskaera-epea 2022ko abuztuaren 9an hasiko da, 9:00etan, eta aurkezteko azken eguna 2022ko urriaren 24an izango da, 14:00etan. Gehienez 6 proposamen izango dira fase hori gainditu eta behin betiko onuradunak.

Eskaera egin ahal izateko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Erakunde batek ezin du eskaera aurkeztu, baldin eta dagoeneko erakunde koordinatzailea baldin bada indarrean dagoen beste deialdi baten onuradun den aliantza batean.
- Erakunde berak ezingo du eskaera batean baino gehiagotan parte hartu aliantzako erakunde koordinatzaile gisa.
- Informazio eta dokumentazio guztiak indarrean egon behar du eskaera aurkezten den unean.
- Datuak babesteari dagokionez, erakundeek Kutxa Fundazioarekin duten harremana datu pertsonalak babesteari buruz une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren mende egongo da.
- Ez da onartuko ezarritako epetik kanpo jasotako eskaerarik, ez eta horren aldaketarik ere, garaiz eta behar bezala aurkeztu ondoren.
- Kutxa Fundazioak sustatutako edozein deialditan erakunde bat laguntza baten onuradun izateak ez du eragozten bestelako helburu batzuk dituzten beste deialdi batzuetara aurkeztu ahal izatea, betiere deialdi bakoitzean eskatutako finantza eta jardueren justifikazio-baldintzak behar bezala bete baditu.

#### **Lehenengo fasean aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentazioa (aliantzako kide guztiek):**


- Azken bi ekitaldietako galdu-irabazien kontua, legezko ordezkari batek sinatua.
- Azken ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren aitorpen osoa.
- Proposamenaren aurrekontua, blokeka eta parte-hartzaileka, ereduaren arabera.
- Proposamenaren inplementazioaren gutxi gorabeherako kronograma.

#### **Bigarren fasean aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentazioa (aliantzako kide guztiek):**

- Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Kutxabank, S.A.ko kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Proposamenaren aurrekontu xehatua eta egiaztariak, partidaka eta parte-hartzaileka, ereduaren arabera.
- Aliantzaren funtzionamendua egiaztatzen eta arautzen duen barne-akordioaren dokumentua; ondorio horietarako, plataforman eskuragarri egongo da, aliantzan parte hartzen duten erakundeen ordezkariak sinatuta.

Akordio hori eranskin gisa gehituko zaio azken hitzarmenari, eta honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Aliantza osatzen duten erakundeen zerranda.



- Eskaera aurkezten duen eta Kutxa Fundazioaren aurrean proposamenaren erantzukizuna eta ordezkaritza bere gain hartzen dituen erakundearen –aliantzaren koordinatzailearen– identifikazioa.
- Aliantza osatzen duten erakundeetako bakoitzak hartzen dituen konpromisoen xehetasuna.
- Aliantzako kide bakoitzak gauzatuko duen aurrekontu osoaren ehunekoaren xehetasuna.
- Deialdi honetan aurreikusitako eskakizun edo baldintza guztiak betetzen dituela adieraztea.
- Proposamena eskaeran deskribatutako moduan gauzatu ondoren, azken memoria aurkeztu eta Kutxa Fundazioaren onespena lortu arte Aliantza desegingo ez den konpromisoa.
- Proposamenaren implementazioaren kronograma zehatza.
- Proposamenaren beste finantzaketa-iturri batzuen ekarpenaren ebazpenaren edo ebazpenen kopia, hala badagokio, edo eskaeraren kopia, ebazpenaren zain baldin badago.

#### **Dokumentazio gehigarria, ez nahitaezkoa, positiboki baloratuko dena (aliantzako kide guztien kasuan):**

- Erakundearen boluntarioritza-plana.
- Kode etikoa eta jokabide-kodea.
- Berdintasun-plana, inklusio-politikak edo bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko plana.
- Hizkuntza-politikako plana.
- Jasangarritasunerako estrategia, ingurumen-politika.
- Egoki iriztitako bestelako agiriak.

## 9 EBALUAZIO-PROZEDURA ETA EBAZPENA

Laguntzak emateko araubidea norgehiagokakoa izango da, eta eskaera-prozesuaren bi faseen ondoren puntuaziorik onena lortzen duten aliantzak izango dira deialdi honen onuradunak.

Eskaerak aurkezteko lehen fasearen epea amaitu ondoren, **ebaluazio-batzorde** batek baloratuko ditu eskaera horiek, ebaluazio-irizpideen arabera.


Ebazpena 2022ko uztailaren 29an jakinaraziko zaie aurkeztutako aliantza guztiei, eta lehen hautaketako aliantzek 10 egun baliouduneko epea izango dute prozesuarekin jarraitzeko asmoa berresteko.

Orduan, eskaera egiteko bigarren eta behin betiko epea irekiko da. Bertan, aurretik hautatutako aliantzek, prozesuarekin jarraitzeko interesa dutela berretsi dutenek, informazio xehatu guztia aurkeztu beharko dute aurreikusitako formularioan oinarrituta, baita deialdian eskatutako dokumentu guztiak ere, bigarren faserako aurkezpen-epea amaitu baino lehen.

Eskaerak aurkezteko bigarren faseko epea amaituta, **ebaluazio-batzorde** batek baloratuko du aurkeztutako dokumentazioa, dagokion atalean deskribatutako irizpide objektiboen arabera. Ebazpena 2022ko abenduaren 22an jakinaraziko zaie aurkeztutako aliantzei.

Bi faseetako edozeinetan aurkeztutako dokumentazioak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, bost egun baliouduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Eskatutako agiriak aurkeztu gabe igarotzen bada epe hori, ulertuko da onuradun gisa proposatutako erakundeak uko egiten diola laguntza ekonomikoaren eskaerari.

Kutxa Fundazioak beretzat gordetzen du deialdi hau eman gabe uzteko eskubidea, uste badu proposamenetako bat ere ez dela iristen gutxieneko kalitatera.



## 10 BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proposamenak baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak hauek dira:

### **ALIANZAREN SENDOTASUNAREN BALORAZIOA: ALIANZAREN ERAKUNDE KOORDINATZAILEA**

**Esperientzia eta gaitasun teknikoa:** esperientzia egiaztatua berrikuntza-proiektuen kudeaketan eta koordinazioan, bereziki aliantzan, eta ezaupide teknikoak deialdiaren xede den lan-eremuan.

**Bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoa:** erakundearen jarduera nagusia finantzatzeko gaitasuna eta erakundearen epe ertaineko iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko finantzaketa-iturriak bilatzen proaktibitatea.

### **ALIANZAREN SENDOTASUNAREN BALORAZIOA: ALIANZTA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN MULTZOA**

**Aliantzaren egokitasuna:** aliantzaren osaera eta antolaketa, osagarritasunaren eta aurreikusitako helburuak lortzeko gaitasunaren ikuspegitik, herritarren ordezkartza barne.

**Gipuzkoan sustraitze soziala:** Gipuzkoan sendo errotuta dauden kideen presentzia, proposamena lurraldean hedatzea edo eskalatzea erraztuko dutenak.

### **PROPOSAMENAREN KALITATE TEKNIKOAREN BALORAZIOA**

**Egokitasuna:** proposamenaren egokitasuna deialdiaren helburuarekiko eta toki bakoitzean eta Europan dagozkion politika publiko eta estrategiek in bat etortzea.

**Justifikazioa:** aztertutako erronkak planteatzen dituen beharrei erantzuteko proiektu-sortan proposatutako konponbideen gaitasuna justifikatzen duen arrazoiketaren sendotasuna.

**Proposamenaren diseinuaren kalitatea eta garapena:** aurkeztutako proiektu-sortako proiektuen arteko koherentzia- eta antolaketa-maila, helburuak lortzeko jarduerak edo esku-hartzeak behar bezala zehaztea, horien izaera berritzailea, herritarrek parte hartzeko estrategiaren eta emaitzen dibulgazioaren diseinu egokia, eta zehaztutako kronogramaren sendotasuna.

**Espero den eragin edo inpaktua:** esku-hartzearen xede diren publikoetan eta ingurunean espero diren inpaktuen – sozial, ingurumen eta ekonomiko – zehaztapen- eta sendotasun-maila; zeharkako inpaktuak sortzeko aukera beste interes-talde edo lurralde batzuetan; aurreikusitako inpaktuen erreplikatzeko eta eskalatzeko gaitasuna.

**Gaitasun teknikoa:** inplementazio-taldea osatuko duten pertsonen gaitasun tekniko nahikoa, taldearen dedikazioen eta kanpoko balizko laguntza teknikoaren zehaztapen egokia.

**Bideragarritasun ekonomikoa:** gastuen zehaztapen sendo eta behar bezala dimentsionatua aurreikusitako helburu eta eraginekiko.


**Proposamenaren onuren iraunkortasuna:** lortutako emaitzen iraunkortasun-gaitasuna erakunde eskudunek beren politiketan integratzeko hartutako konpromisoan oinarrituta, herritarrengandik lortutako inplikazio-maila, etorkizuneko finantzaketa-iturri alternatiboen identifikazioa.

### **PROPOSAMENAREN ZEHARKAKO ALDERDIEN BALORAZIOA**

**Ingurumen-jasangarritasuna:** ingurumen-onurak eta -sinergiak argi eta garbi identifikatzen eta maximizatzen ditu; sortzen duen ingurumen-inpaktua neurtu eta positibizatzen du.

**Euskara:** euskara irakas-hizkuntza gisa normaltzeko jarduerak, proposamenaren ziklo osoan. Sortzen duen eragin soziolinguistikoa neurtu eta positibizatzen du.

**Genero-ikuspegia:** egitasmoaren bizi-ziklo osoan, berdintasun helburuen bidez, emakumeen kontrako diskriminazio oro ezabatzeko neurriak jaso eta zehazten dira; genero inpaktuzko ebaluaketa eginez.



**Aukera berdintasuna:** eskubideen berdinketaren aldeko eta pertsona zein erakunde bakoitzaren neurrirako ekimenak zein proposamenak jasotzen dira eta neurtzeko sistemak erabiltzen ditu.

## 11 BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK


### **Zer betebeharrak hartzen dituzte aliantza osatzen duten erakunde guztiek?**

Hurrengo konpromisoak, deialdiaren indarraldi osoan zehar mantendu beharko direnak, aliantza osatzen duten erakunde guztiei aplikatuko zaizkie.

- Dagozkion administrazio-baimenak edukitzea, laguntzaren helburu den jarduera garatzeko beharrezkoak baldin badira.
- Diruz lagundutako jardueraren ezein alderdiren kudeaketa ez subrogatzea.
- Ingurumen-irizpideak sartu behar dituzte laguntzaren xede den **proposamena** gauzatzeko edozein fasetan dei ditzaketen kontratazio-prozedura guztietan.
- Berdintasunaren arloko araudia betetzea, eta dei ditzaketen kontratazio-prozedura guztietan tratu- eta aukera-berdintasuna bultzatzeko irizpideak sartzea.
- Diruz lagundutako proposamenean era guztietako jarduera, komunikazio eta argitalpenetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu beharko dute.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko dute, diruz lagundutako proposamenean era guztietako jarduera, komunikazio eta argitalpenetan euskararen erabilera lehenetsiz.
- Diru-laguntzaren xede diren emaitzei eta jarduerari publikitate eta zabalkunde egokia ematea.
- Kutxa Fundazioak ezartzen dituen ebaluazio-neurriak bete eta horietan parte hartu beharko da, efizientziaz eta eraginkortasunetik abiatuta, garatutako jarduerak, lortutako emaitzak eta eragin edo inpaktuak neurtzeko.
- Kutxa Fundazioak inpaktu-neurketaren jarraipen propioa egiteko eskatzen duen informazio guztia eman beharko dute.
- Eragin diezaiekeen legezko edo erregelamenduzko beste edozein betebeharrak betetzea.

### **Zer betebeharrak hartzen dituzte, gainera, erakunde koordinatzaileek?**

- Proposamena gauzatzeak ekar ditzakeen erantzukizunak beren gain hartzea. Kutxa Fundazioaren aurrean, proposamena gauzatzeko arduradun juridiko eta finantzario bakarra izatea.
- Administrazio-kudeaketa koordinatzea; Kutxa Fundazioarekin eta aliantzako gainerako kideekin elkarriketa etengabea eta arina izatea; eta proposamenaren jarduera, aurrerapen eta emaitzen komunikazio- eta zabalkunde-estrategia aktiboa gauzatzea.
- Kutxa Fundazioari jakinaraztea helburu bererako eskatutako edo onartutako beste diru-laguntza batzuk, laguntza ekonomikoaren xede den jarduera berari dagozkion laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, baita jada jakinarazitakoetan gertatzen den beste edozein aldaketa ere, horien bateragarritasuna ebaluatu ahal izateko.
- Diru-laguntza ezeztatuz gero, jasotako funtsak itzultzea, dagozkion ebazpenean adierazitako moduan.



## 12 JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKO ETA EKONOMIKOA

Proposamenen gauzatzearen etengabeko jarraipena egingo da sei hilean behin bilerak eginez, eta Kutxa Fundazioak edozein unetan eskatu ahal izango du aurrerapenari buruzko informazioa.

Laguntza esleitu eta 12 hilabetera, aliantzak emaitzen tarteko txosten bat aurkeztu beharko du, dagokion justifikazio-dokumentazio tekniko eta ekonomikoarekin batera, eta Kutxa Fundazioak ebaluatu egingo du hori. Txosten hori batera eta aliantzaren koordinatzailearen bidez aurkeztu beharko da, eta proposamenean zehaztutako eragin edo inpaktu-adierazleak jaso beharko ditu, baita Kutxa Fundazioak eskatzen dizkion datuak ere bere inpaktu-balorazio propioa egiteko.

Deialdi honen indarraldia amaitu ondoren, hau da, 24 hilabete igaro ondoren, edota proiektuak amaitutakoan, aliantzak, bere erakunde koordinatzailearen bitartez, amaierako memoria aurkeztu beharko du, eta memoria horretan honako hauek jasoko dira: benetan egindako lanak, planteatutako helburu teknikoaren lorpena, egindako gastuen/inbertsioen xehetasunak, ekimena garatzeko lortutako diru-sarrerak, planteatutako helburuekiko gerta litezkeen desbideratzeak, eta interesa izan dezaketen eragileak eta herritarrak emaitzez jabetzeko egin diren ekintzak.

Dokumentazio hori aurkeztu eta gero, ebaluazio-batzorde batek dagokion egiaztapena egingo du azken ordainketa egiteko. Egiaztapen horren ondorioz ondorioztatzen bada emandako laguntzak diruz lagundu daitezkeen kostuaren %80a gainditzen duela, doitu egingo da laguntza. Laguntza ekonomikoa justifikatzeko ezarritako baldintzak osorik edo partzialki betetzen ez badira, edo laguntza emateko helburuak betetzen ez badira, horren berri erakunde interesdunari emango zaio, egindako egiaztapenaren emaitzekin batera, eta laguntza kobratzeko eskubidea galtzat jotzeko prozedurari ekingo zaio, edo, hala badagokio, laguntza osorik edo zati batean itzultzeko prozedurari.

### **Gastuen/inbertsioen frogagiriak**


Gastu/inbertsio finantzarriak behar bezala justifikatu beharko dira gastuari/inbertsioari buruzko agirien bidez, baita dagozkien ordainagiriak ere, 7. epigrafean (DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK ETA GASTUAK) adierazi den bezala gastu/inbertsio tipologia bakoitzean. Gastuak/inbertsioak euskarri digitalen bidez egiaztatuko dira.

Gastu/inbertsioek gastua/inbertsioa gauzatzen duen aliantzako kide den erakundearen izenean egon behar dute.

Aurkeztutako gastuen/inbertsioen jatorrizko frogagiritan zehaztu beharko da agiri horietan jasotako zenbatekoa emandako laguntzari osorik edo zati batean egozten zaion, eta, bigarren kasuan, egotzitako ehunekoa adierazi beharko da. Frogagiri horietako eragiketaren deskribapenak behar adina informazio eman behar du fakturazioaren xede den kontzeptuari eta aldiari buruz, gastuaren eta laguntzaren xede den jarduketaren arteko erlazioa egiaztatu ahal izateko. Faktura edo agiriaren kontzeptua behar bezala azaltzen ez bada, entrega-albaranak edo bestelako frogagiriak eskatu ahal izango dira.

Kutxa Fundazioaren laguntza-plataformako atal bakoitzean egindako gastuen egiaztapen guztiak erantsi beharko ditu aliantzaren erakunde koordinatzaileak, bai bere izenean daudenak, bai aliantza osatzen duen edozein erakunderen izenean daudenak.

Justifikazioko dokumentazioan faktura elektronikoak eta digitalizazio sinpleak (PDF), fakturak, frogagiriak eta ordainagiriak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten beste agiri batzuk sar daitezke.




- Fakturei dagokienez:
  - BEZa egotzen denean, irizpide orokor gisa, dagokion ogasunak berreskuratu edo konpentsatzen dituen fakturen BEZa ez da diruz lagunduko:

Hainbanaketa orokorraren erregimenari lotuta egonez gero, erakundeak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, jasotako laguntzaren xede diren gastuak/inbertsioak jaso diren aldietan BEZaren kengarritasun-portzentajea egiaztatzen duena. Portzentaje hori ezin da diruz lagundu.

Hainbanaketa bereziaren araubideari lotuta egonez gero, entitateak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, laguntzaren xede izan diren gastu/inbertsio bakoitzari BEZaren kengarritasun portzentajeak aplikatzen zaizkiola frogatzeko. Portzentaje horiek ez dira kasu bakoitzean diruz lagunduko.
  - Fakturak PFEZren atxikipena badu, zenbateko horiek dagozkien ogasunetan sartu direla egiaztatzen duten hileko/hiruhileko eta urteko ereduak (adibidez, 110 eta 190 ereduak) aurkeztu beharko dira.
  - Eskatutako faktura batzuetan BEZa agertzen ez bada, nahitaezkoa da salbuespena aplikatzeko arau-xedapena aipatzea, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6.1.j artikulua arabera.
- Legezko ordezkariak sinatutako erantzukizuneko aitortpena, laguntzaren xede den proposamena finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztua, zenbatekoa eta jatorria adierazita. Laguntzaren xede den proposamenerako (Kutxa Fundazioarena barne) jasotako diru-sarreraren edo diru-laguntzen guztizkoak ezin izango du inoiz proposamenaren kostu osoa gainditu. Kasu horretan, laguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko prozedura hasiko da, edo, hala badagokio, itzulketa osoa edo partziala egiteko prozedura.
- Beharrezkoa izango balitz, justifikatutako jardueraren eta hasieran diruz lagundutako jardueraren arteko desbideratzeak justifikatzeko memoria, hasieran onetsitako jardueraren eta azkenean justifikatutakoaren artean izan diren aldaketak argudiatuz erakunde onuradunak.

#### Beste gogoeta batzuk:

- Erakundeek %15eko desbideratzea izan dezakete Kutxa Fundazioari justifikatutako aurrekontu-partiden artean. Horrela, partida bateko guztizko gastu txikiagoa beste partida bateko gastu handiagoarekin konpentsatu ahal izango da, gehienez %15eko mugaraino, desbideratze guztiak batuz eta horien zenbatekoak ahalbidetzen badu betiere.
- Kutxa Fundazioak ahalmena izango du, oro har, laguntza zuzen erabiltzen dela egiaztatzea eta beharrezkotzat jotzen diren froga-agiri gehigarriak aurkeztea eskatzeko. Era berean, Kutxa Fundazioak laguntzaren xede diren gastuen merkatuko balioa egiaztatu ahal izango du.
- Kasu guztietan, aliantzak proposamenaren gastuaren %100 justifikatu beharko du, Kutxa Fundazioak emandako laguntza edozein dela ere.
- Diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzeko ebazpenean zehaztu den epearen barruan egon beharko dute egiaztatgiriaren datak. Ordainagiriaren data, gehienez ere, egiaztatgiriak ezarritako gehieneko data baino bi hilabete geroagokoa izan daiteke.



## 13 INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA

Kutxa Fundazioak finantzatutako proposamenetatik eratorritako informazio tekniko eta ikus-entzunezko material guztia erabili ahal izango du bere kanalen (web-orriaren, sare sozialen, beste batzuen...) bidez eta hainbat eragilerekin harremanetan jartzeko sareen bidez, informazio hori zabaldu, jendartean ezagutarazi eta bere balioa nabarmentzeko.

## 14 DATUAK BABESTEIA

Datuak babesteari dagokionez, erakundeek Kutxa Fundazioarekin duten harremana datu pertsonalak babesteko une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren mende egongo da.

## 15 LANKIDETZA-HITZARMENA

Kutxa Fundazioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko du erakunde koordinatzaileetako bakoitzarekin, haien eskaerak laguntzea erabakitzen badu, eta eranskin gisa jasoko du aliantza osatzen duten erakundeek sinatutako eta eskaera-prozesuaren bigarren faserako aurkeztutako barne-akordioa. Laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzailea titular den Kutxabank S.A. ren kontu batean ordainduko du, hiru epeetan: laguntzaren %30 lankidetzaren hitzarmena sinatzean, %40 gauzatzeko 12 hilabeteen amaieran, aurretik bitarteko txostena aurkeztuta, eta gainerako %30a ekimena gauzatzeko azken memoria aurkeztu eta onartu ondoren, hori, nolana ere, 2025eko martxoaren 31 baino lehen entregatu beharko delarik.

Jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epean ez bada hitzarmena sinatzen laguntzaren onuradunari egotz dakioken arazoaren batengatik, laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

## GARRANTZITSUA

- Kutxa Fundazioak behar diren berrikuspenak egin ahal izango ditu deialdiaren bidez babesten dituen ekimenak gauzatzean.
- Betekizunen eta oinarrien azken interpretazioa Kutxa Fundazioari dagokio. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gaiak Kutxa Fundazioaren irizpidearen arabera ebatziko dira, eta haren erabakiei ezingo zaie errekurtsorik jarri.
- Oinarrietakoren bat ez betetzea kanporatzerako arrazoia izan daiteke.
- Kutxa Fundazioaren erabakia apelaezina da.
- Deialdira aurkezteak esan nahi du Kutxa Fundazioaren oinarriak eta interpretazio-irizpideak onartzen direla, oinarri horien arabera ebatziko delarik deialdia.